


## 15 eta 24 urte bitarteko gazteen proportzioa txikiagoa da EAEn Europar Batasuneko edozein estatutan baino

**Adin tarte horretako gazteen ehunekoa jaitsi egin da % 13,2tik % 8,5era 2001etik 2011ra**


Urriaren 20an Estatistikaren Nazioarteko Eguna dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) gazteei buruzko datu estatistiko batzuk kaleratzen ditu.

[Eustatek](#) (Euskal Estatistika Erakundea) kaleratutakoaren arabera, EAEn 2011n 15 eta 24 urte bitarteko 185 576 gazte zeuden; kopuru horrek EAEko biztanleria osoaren % 8,5 suposatzen zuen.

Datu horiek Europar Batasuna osatzen duten 27 estatuei dagozkienekin alderatuz gero (datuok [Eurostatek](#), hau da, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak, plazaratu ditu), ikus dezakegu EAE dela 15 eta 24 urte bitarteko gazteen proportziorik txikiena zuen lurraldea.



Dena dela, hau ez da beti horrelakoa izan. 2001ean EAEn 15 eta 24 urte bitarteko ehunekoa 2011koa baino bost puntu handiagoa zen ia (% 13,2) eta Europako batez bestekoaren parean zegoen (% 13,1).



Biztanleria osoarekiko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen pisuak azken hamar urteotan izandako jaitsierak ondoko datuetan dauka oinarria: 2001etik 2011ra EAE osoan 91 446 pertsona gutxiago daude, eta murrizketa hori aztertutako adin tartean gertatu izan da gehienbat, 15 eta 24 urte bitarteko 88 738 gazte gutxiago daude 2011n eta.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

